

TOLOSALDEKO HERRI ALDIZKARIA

# Galtzaundi

**ESKUALDEA:** Tolosako HHI 20 urte bigarren aukera ematen » 28 Kanalak erronka handien aurrean

**BIZILAGUNA ZIRRIKITUTIK:** Xabier Iturrioz **KIROL SALTSA:** TAKeko neskak harro Kontxan

egindakoarekin » Hilaren 28ko apustu handiari begira adituen iritziak



**KIROL SALTSA:** Itsaso Leunda hernaldearra errepideko Espainiako txapelduna



## *Kristalarekin jolasean*

**ERREPORTAIA:** Galtzaundi.com berriaren aurkezpena





**Argitaratzailea:** Galtzaundi Euskara Taldea.

**Helbidea:** Nafarroa etorbidea,  
6-behea.  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

**Telefonoa:** 943 655 004

**Faxa:** 943 654 983

**e-posta:** galtzaundi@galtzaundi.com

**Webgunea:** www.galtzaundi.com

**Koordinazioa:** Leire Zubeldia.

**Erredakzio taldea:** Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,  
Amaia Goikoetxea Azpeitia.

**Kolaboratzaileak:** Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jan Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Arrieta, Begoña Aristi, Antton Izagirre, Ibon Artola, Iñigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Amaia Goikoetxea Orbegozo.

**Publizitatea:** Angela Alamo.

**Banatzaileak:** Oihana Sanchez,  
Juankar Anregi.

**Idazkaria:** Edurne Mendia.

**Maketazioa:** Zigor Agirrezabala

**Diseinua:** Jon Ander Ubeda eta  
Maddi Truxuelo.

**Azala:** Galtzaundi

**Inprimategia:** Antza.

**Tirada:** 5.000 ale.

**Lege gordailua:** SS-906/91.

**Frankeo Itundua:** 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Beldiain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hermialde, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanen eta initzen erantzukizunik.



zerbitzua eta lana euskaraz



Aldizkari honek Eusko Jaurlantzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udaleraren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.


**IRITZIAREN LEIHOA**

- Amaia Goikoetxea: Hemen zerbait ez doa ondo
- Antton Izagirre: Atzogenion bezala...

4-5. orrialdeak

**NORMALIZAZIO ATALA**

- Elkarte gastronomikoetarako euskarazko aplikazioa doan sarea.



6. orrialdea

**ESKUALDEKO ALBISTEAK**

- Tolosako HHI ezagutzen
- 28 Kanalaren bigarren urteurrena

10-13 orrialdeak

**Galtzaundi 286**  
2008ko irailaren 19a

Iritziaren leihoa: Amaia Goikoetxea eta Antton Izagirre .....4-5

Eskualdeko albisteak:

Tolosako HHI-eko arduradunekin berriketan .....10-11

28 kanala bigarren urteurrena bete berrian.....12-13

Bizilaguna zirrikitutik: Xabier Iturrioz apaiza .....14

Kirol saltsa: TAKeko neskak Kontxaren ondorenean .....20

Itsaso Leunda ezustean Espainiako txapeldun.....21

Hilaren 28an apustu handia .....22-23



**ERREPORTAIA**  
Galtzaundi.com berria martxan

7-9. orrialdeak

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutako argitalpena

**KULTURA**

*“Kristalak dena dauka ona. Niretzat materialik polibalenteena da. Aukera gehien beirak ematen ditu. Hasteko bere konposizioa kontrolatu dezaket. Beira mota asko lor-tu daitezke. Gero puztu egin daiteke, okertu egin daiteke, moztu egin daiteke, margotu, zerratu, taladratu... denarik egin dezakegu kristalarekin.”*

• IGOR OBESO  
ARTISAU

17-19 orrialdeak



## HEMEN ZERBAIT EZ DOA ONDO

### AMAIA GOIKOETXEA

Kazetaria

**E**z naiz legeetan aditua, are gehiago, ezjakin hutsa naiz arlo horretan, eta beraz, printzipioz, ez nintzateke gai horren inguruan ezer handirik esatera ausartuko. Baina azkenaldian gertutik bizi izan dudana egoera batek, lege kontuak orri hauek ekartzea eskatu dit, besterik ez bada ere, legeak hutsuneak dituela iruditzen zaidala esateko.

Hutsuneak, bai, behin eta berriz babesa eskatu duten herritar batzuei ez zaielako eman. Behin eta berriz herriko bakea apurtzen ibili den lagun bati hori egiten utzi zaiolako, eta azken hau bere buruaren jabe ez izan arren, etxean utzi dutelako, bakarrik. Hilaren hasieran, lagun honek hainbat herritar jazarri, mehatxatu eta arma zuriz erasotu zituen. "Aspalditik genekien hau gertatuko zela", diote herritarrek. "Baina ez da ezer egin hori galeraz-

teko eta azkenen gertatu egin da, eta ezer larriagorik gertatu ez denean gustura egoteko moduan gara".

Irakurle bat baino gehiago ohartuko zen jada irailaren lehen egunean Alegian jazo-tako gertakariari buruz ari naizela; momentu hartan prentsak xehetasun guztiakin deskribatu zuen istilua, beraz, ez naiz ni orain berriz ere kontu hura guztia azalerraten hasiko. Benetan kezkatzen nauena da, azken gertakari hau guztietan larriena izan bada ere, ez zela lehena. Lagun hau aspalditik zebilen herritarrek mehatxatzen, erasotzen eta hamaika istilu sortzen. Horrelako pasarteren bat gertatzen zenean, bizilagunek Ertzaintzari deitu eta hauek beraiekin eramaten zuten gaztea, baina hurrengo egunean kalean zen berriz ere.

Bere kontrako hainbat salaketa ere jarriak daude, baina orain arte behintzat, ez

dute inolako fruiturik eman. Erietxean ere egon izan da, arazo psikologikoak baititu, baina han senda-agiria jaso eta berriz ere etxera, bera bakarrik bizi den etxera. Eta berriz ere martxan jartzen da istiluen gurgil zoroa.

Azken urteetan etengabe errepikatu den egoera honek herritarren bizimoduan oso eragin negatiboa izan du, beldurra sentitzeraino; hilaren hasierako pasarte horrek frogatzen du gazte hau egoera horretan kalean bakarrik dabilen bitartean, herritarrek arrisuan daudela. Herritarren segurtasuna arriskuan jartzen duen pertsona baten aurrean, legeak ezin al du ezer egin? Ezin omen da pertsona hau bere borondatearen aurka erietxera eramain pairatzen duen gaixotasuna sendatzeko, bere borondatez egin beharreko kontua omen da hori. Salaketak ere jarriak daude, bai-

*"Herritarren segurtasuna arriskuan jartzen duen pertsona baten aurrean, legeak ezin al du ezer egin?"*

na dirudienez, orain arte egindakoak ez omen dira "behar adina larri" izan gazte hau espertxean sartzeko.

Ni ez naiz nor horrelako pertsonen non egon behar duten esateko, baina herritarren segurtasuna arriskuan dagoenean, inork ezin al du ezer egin? Azken eraso larri horretara iritsi baino lehen ez al zegoen inolako modurik beharrezko neurriak hartzeko? Gazte hau bere buruaren jabe ez zela ikusita, ezin al zitzaion inolaz ere lagundu?

Hori guztia horrela bada eta benetan egia bada legeak, gaur egungo sistemak edo dena delakoak ez zuela modurik azken eraso hori eragozteko, hemen zerbaitek ez du ondo funtzionatzen. ■

**Kilometroak**  
2008  
ITUTA

Urriaren 5ean izan partaide!

Egin kilometroak gurekin!

Urriaren 5ean zatoz bizikletan Irurara!  
Irurako Loatzo plazan 400 bizikletentzako aparkalekua egongo da egun osoan  
Ez dago modu hoberik!

eraikitzen  
KmK-08  
Irurako Loatzo

PRIMERAN PASA  
PASATU GABE

Irurako Loatzo



## ATZO GENION BEZALA...

### ANTTON IZAGIRRE

Irakaslea

**D**agoenarekin desadostasunean bizi garenok uda garaiko tartea asmo berriak eraiki eta lehendik zaharkituriko konpromisoak berritzeko balio duenaren ustea dugu. Badira hala ere, honek erremediorik ez duela eta izate hutsarekin konformatzen direnak, etor daitekeenak hobera egingo ez duenaren ezkortasunean irauten dutenak. Ez dira faltako ere, bere txarrean etorkizunari errentagarritasuna ateratzeko dena berdineko okerrago jarraitzea nahiago dutenak, besteen txarretik ongia datorkiela uste dutenak.

Hauek eta aukera gehiago aurki genitzake gure gertuko politikagintzaren kosmosean. Uda aurretik utzi genuen puntu berean topatu dugu uda ondorengo eztabaida eta politika jarduna bera ere. Lepo beretik burua eta buru gutxi lepagainean.

Orain, lehen bezala Estatuak behin eta berriz erakutsi nahi digu errepresio bideari ez diola utzi eta ez duela uzteko asmorik ere. Euskal Herriarekiko konpromiso independentzia

zaleak arnasarik gabe uzteak estatu espainiarreko alderdi politikoei errenta politikoa emateaz gain, burujabetzan eragin dezaketen indarren sinergiak anestesiatuak mantentzea ziurtatzen du. Horrela atxiloteta, bahiketa, tortura eta ezker abertzalearen (EHAK, ANV, Batasuna, Udaltzuzketa...) etengabeko kolpatzearen eta kartzelaratze ildoari etenik gabe atxiki zaio, udazkeneko eszenatoki politikoa nondik norakoa estatuaren parametroetan marrazteko. Bide batez iragarri digu zer gerta dakioken udaberrian egingo diren Gasteizko Parlamenturako hauteskudetan parte hartzeko entsegu hipotetiko bati.

Antzeko bideak eta moduak erabili ditu Frantziako Estatuak errefuxiatuak atxilotuz, kartzelaratu edo Laborarien Ganbarako arduradunak auziperatzeko hartutako erabakiekin.

Bitartean uda aurretik erabakitze eskubidea eta galdeketa sutsuki defendatuko zituela ziurtatuz ageritzen P.N.V., indarrak ahituta itzuli da nonbait uda ondoren, Espainiako epai-

tegiek auzi horren inguruan erabakiko dutena, gogoz kontra bederen beteko duela baieztatuz. Ikusi besterik ez dago P.N.V.ren jarrera ustel honek eraginda zenbat atxikimendu eta interes gutxi sortu duen herritarrengan. Uda aurretik Ibarretzek puztuta nahi zuen globoa erabat husturik, ainerik gabe iritsi da udazkenara.

Datozen hauteskundeak heldu bitartean pizturik mantendu nahi zuten suziak ez du dagoeneko kea besterik, herritarrengan hedatu zuen itxaropen faltua agerian utziz. Zer sinisgarritasun izan dezake Ibarretzek berriro hauteskudetara aurkezteko bere etxean, P.N.V.k, bere proposamen izarra zen galdeketa dela eta halako babesgabetasunean utzi baldin badu?

Berriro ere PNVk erakutsi du nahiago duela eduki politiko sakonak dituen eztabaida politikoan lehia bano eguneroko gestioan oinarrituriko politikan aritu: inbertsioak, eraikuntzak, propaganda... Hauteskudetarako botoak bildu, politikan eroso aritu eta arazo poli-

*“uda aurretik erabakitze eskubidea eta galdeketa sutsuki defendatuko zituela ziurtatuz ageritzen P.N.V., indarrak ahituta itzuli da nonbait uda ondoren, Espainiako epaitegiek auzi horren inguruan erabakiko dutena, gogoz kontra bederen beteko duela baieztatuz”*

tiko potoloak saihestu. Hori egiteko prest dagoen lehendakari gaia behar du P.N.V.k, zintzo-zintzo alderdien interesen mesedetan ariko dena.

Poz txikiarako ere izan dugu unerik. Arnaldo Otegi espetxetik ateratzeak eta hitz gutxitan eman duen mezuak itxaropenari ateak zabaltzeko balio handia du. Asko esatea baldin bada ere, Ibarretzek kontsultaren proposamenarekin sortzeko gai izan ez den ilusioa piztu du Arnaldok lau hitzetan: elkarrizketa, negoziazioa, bakea, presoak kalera. Eta Ezker Abertzaleak horren alde estrategia berriak martxan jartzen dituen heinean etorkizuna urdinez margotzen has gaitzake. ■

**Martin Eceizabarrena**

Instalazio erreforma  
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 674 445  
Mobila: 608 774 822

**SANTAMARIA**

*Ortopedia*

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610 • TOLOSA

**SHANTI**

**kirolak**

Rondilla, 11 bis • Tel.: 943 674 074 • TOLOSA

# Elkarte gastronomikoetarako euskarazko aplikazioa doan sarean

DONOSTIAKO INFORMATIKA FAKULTATEAN GARATUTAKO SISTEMA INFORMATIKOA, INTERNETETIK HAR DAITEKE DOAN

Erredakzio Batzardea

**N**eurri horiek bi faktoreren ondorio dira, nagusiki: Anoetako herritarrengan euskaraz gero eta presentzia handiagoa izatea (eskolan, kalean, lan munduan, merkataritzan...) eta udalak azken hamarkadan euskararen alde hartutako erabakiek jorratutako bidea.

Herritarrei dagokienez, euskararen erabilera eta eza gutza handituz doaz Anoetan, eta horren adierazgarri dira Euskararen Kale Erabilaren Neurketan euskaraz gora egitea, seme-alaba guztientzat eskola eredu euskalduna aukeratzea, kultur ekintzetan euskarari lehentasuna ematea, herriko dendetan eta enpresetan euskaraz gero eta toki handiagoa izatea, erakunde publikoetan euskararen aldeko neurriak sustatzea...

**OnEgin! izena duen sistema informatikoa, beraien kontuak euskaraz egiteko urratsa eman nahi duten elkarte gastronomikoen eskura da. Kode libreko sistema hau internetetik har daiteke doan.**

Anoetako Udalak euskararen alde egindako ibilbideari dagokionez, aspaldi hasi zen euska-

rarekiko konpromisoak hartzen: 1999an Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sar-

tu zen, 2001ean Euskararen Erabilera Plana onartu zen, urte asko dira diru laguntzak bideratzen dituela euskara ikasten ari diren herritarrentzat...

Horregatik guztiagatik, euskararen alde beste aurrerapauso bat eman nahian, udal zereginetan euskarari presentzia handiagoa eman nahi dio Anoetako Udalak. Azken batean, udalaren eta anoetarren izatera euskaldunarekin koherenteagoak izatea nahi da; hau da, euskaraz udal zereginetan ere beste esparru batzuetan duen pareko garrantzia izatea.

Neurri berrien ondorioz, herritar batek euskarazko idatzia behar bezala ulertzen ez bada, Anoetako Udalak behar adinako laguntza emango dio: udaletxean, langileek agiria- ren gaineko argibideak emango dizkiote, eta, hori nahikoa ez bada, herritarrek beti izango du aukera itzulpena eskatzeko. ■



Santa Luzia Auzoa, 1 - Tel.: 943 673 118 -TOLOSA



**Saldias Miguel**  
CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA  
N. D.G.S. J.1759  
SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Bizi-asegurua  
Kotxe-asegurua  
Istripuak  
Gaisotasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-asegurua  
Denda-asegurua  
Erretiroak  
Inbertsio fondoko

**ALDATZ  
Kristaldegia**  
Mota guztiako beirak  
Bainu eta dekoraziorako  
ispilua  
Beirate artistikoak  
Duxa-itxiturak  
Tel./Faxa: 943 674 845  
kristaldatz@euskalnet.net  
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA



**BENTA  
ALDEA**  
JATETXEA  
Tel.: 943 654 079  
ANOETA-TOLOSA BIDEAN

**ELUSTONDO  
ELEKTRIZITATEA**  
Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak  
Turre, 4 (Mustad) 943 672 300  
Amaroz, 21. 943 675 513  
20400 TOLOSA



# Galtzaundiren atari berria martxan

HILABETE HONEN AMAIERARAKO MARTXAN EGONGO DA WWW.GALTAUNDI.COM BERRIA.

Erredakzio Batzordea

**B**i urtez geldirik egon den ataria baztertu eta interneteko atari berria egin du Galtzaundik. Webgune berriak bi eginkizun nagusi izango ditu. Batetik, euskara taldean antolatzen diren ekimenen berri eman eta hauek zabaltzea. Bestetik, Tolosaldean egunero jazotzen denari jarraipena egitea. Aldi berean, webgune berria internet euskarazko edukiz janzteko Galtzaundik duen konpromisoaren isla ere bada.

**Galtzaundi Euskara Taldeak webgune berria du. Hilabete honen amaieran martxan egongo da. Internet lanerako nahiz aisirako ezinbesteko tresna bihurtu den garai honetan, Galtzaundik bertan egoteko apustua egin nahi izan du. [www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com) berriak, Galtzaundi Euskara Taldean eta Tolosaldean sortzen den informazioaren erakusleiho izan nahi du. Edukiz betetako atari dinamikoa izango da.**

Aipatutako bi helburu nagusiak ongi islatzen dira atariaren antolaketa. [www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com) webgunean sartzen denak edizio jarraia ikusiko du lehenik eta pantailaren goikaldean egongo diren atetxoek euskara taldeko sail guztietarako sarbidea

emango dute. Horrela, besteak beste, aldizkaria, kultura, normalizazioa, hemeroteca, agenda eta bazkideen txokoa atalak bisitatu ahal izango ditu erabiltzaileak. Atal hauetatik nabigatzea erraza da, eroso. Klik egin berterik ez dago.

## EDIZIO JARRAIA

Webgunean sartu eta sarre-rako pantailan, azalean, edizio jarraiarekin egingo du topo erabiltzaileak. Bertan Tolosaldean gertatzen denaren berri eman nahi da, landutako testu eta argazkiekin hornituta.

Galtzaundi Euskara Taldearen paperezko agerkaria hamabostean behin irtetea, tartean landu gabe geratu ohi izan dira hainbat albiste interesgarri. Interneteko edizioak ordea, epe muga hori hautsi eta paperezko edizioan agertzen ez diren gertakari interesgarrien berri emateko

(hurrengo orrian jarraitzen du)

**(aurreko orritik dator)**

aukera zabaltzen du. Horrela, egunerokotasunean ematen diren berriak, azken ordukoak, asteburuko kirol emaitzak eta abarren berri eman go da. Nabigatzailea atarian sartzen den bakoitzean, gutxienez albiste berri bat topatzea nahi da.

**ALDIZKARIA**

Interneteko agerkariak Galtzaundiko irakurleari eman nahi dion beste aukera bat,

hamabostekaria bere ordenagailuan irakurtzea da. Aldizkariaren kaleratze egunean bertan zintzilik egongo da pdf formatuko artxiboan. Horrela, pixkanaka hemerroteka digitala osatuz joango da, azken aleaz gain, aurretik kaleratutako zenbakiak ere irakurgai izango direlarik.

**NORMALIZAZIOA**

Euskararen normalizazioaz arduratzen den Galtzaundiko sailak bere txokoa izango du atari berrian. Hizkun-

tza baten normalizazioa prozesu geldoa eta neurri batean abstraktoa (ez-materiala) denez, sail honetan egiten den lana zaila da jendeari ikustarazten. Webguneak helburu horretarako bidea eman go du.

Normalizazioa atalak bi azpi-atal izango ditu: Albistek eta estekak.

Lehenengo azpi-atalean euskararen normalizazioarekin zerikusia duten albiste orokorrak bilduko dira. Honekin batera, euskara taldean

alor honetan egiten ari denaren berri emango da. Martxan jarri diren ekimenen nondik norakoak, hauen balorazioa... Estekak atalean berri, euskalgintzan diharduten entitateen webguneen loturak erraztuko zaizkio nabigatzaileari.

**KULTURA**


Galtzaundi Euskara Taldeak ahalegin berezia egiten du eskualdeko herrietan euskara sustatzeko kultur ekintzak antolatzen. Ipuin kontalarien ohiko saioetatik hasi eta erakusketa ibiltarietaraino makinan bat ekintza ezberdin ematen dira aurrera urtean zehar. Ekitaldi hauen kronikak, hauen atarikoak, protagonistei elkarrizketak eta bestelako albisteez hornituko da atal hau, testuak eta irudiak jasoz.

**ESTEKAK**

Webgune guztietan tokitxo bat izaten dute estekak eta baita [www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com) atarian ere. Bertan, Galtzaundi Euskara Taldeari interesgarri zaizkion loturak egingo dira, erabiltzaileentzat ere interesgarri izango direlakoan. Horrela, udaletxeak, elkar-teak, komunikabideak eta eskualdeko bestelako eragileen webguneetako estekak sortuko dira.

**AGENDA**

Tolosa eta Tolosaldea oso biziak dira kultur ekintzen aldetik. Eskualdeko instituzio publikoek zein elkarteek antolatutako ekimen guztiak bilduko dira webguneko agendan. Ekimen mota, (antzerkia, kontzertua, hitzaldia, erakusketa...) lekua, ordua eta honen iraupena zehaztuko dira, ekintzari buruzkoak testutxo batean azalduz. Eskualdean egiten diren ekintza hauekin batera, Galtzaundi Euskara Taldeak antolatzen dituen







Edukiz betetako webgune dinamikoa izango da [galtzaundi.com](http://galtzaundi.com)

ekitaldiak ere agendan txer-tatuta egongo dira, baina ikur bereizgarri bat eraman-go dute, erabiltzaileek Galtzaundik antolatutako ekin-tza dela jakin dezaten.

### BAZKIDEAK

Atari berrian Galtzaundi-ko bazkide egiteko aukera ere eskaini nahi da. *Egin zaitetz bazkide* dihoen lekuan dagoen formularioa bete eta

“bidali” botoian klik egitea nahikoa da horretarako. Honekin batera, zalantzak uxatu eta pausua emateko, Galtzaundi Euskara Talde-ko bazkide izateak dakar-

*“Nabigatzailea atarian sartzen den bakoitzean, gutxienez albiste berri bat topatzea nahi da.”*

tzan abantailen berri ematen duen testua ere irakurgai izango da. Bazkide direnontzat berriz, hamabostean behin egiten diren zozketetan sarituak suertatzen direnen izenak argitaratu-ko dira.

Eskualdean eta Galtzaundi Euskara Taldean ematen denaren berri, modu erraz batean eta euskaraz jasotzeko aukera da atari berriak eskaintzen duena. Edukiz betetako webgune dinami-koa, bizia, egitea da asmoa. Hori ordea ez dago soilik Galtzaundiren esku. Zuek zarete gakoak. Egin klik beraz!

## GALTAUNDIREN KULTUR EKITALDIAK



**Lur Korta**  
ipuin kontalaria  
Irailak **18**

ADUNA. 17:00, kultur aretoan  
LARRAUL. 18:00, kultur etxean

Irailak **25**

URKIZU. 17:30, apaiz etxean

Irailak **29**

ALDABA. 18:00, apaiz etxean

**Euskarazko**  
komikien  
erakusketa

Urriak **3tik 24ra**

Ibarrako kultur etxean



**TOLOSA >>>** HHI-N MATRIKULATUEN KOPURUA IGOTZEN ARI DA URTETIK URTERA. AURTENGO KURTZOAN ERE IAZKO

# Tolosako HHI, hogeiei urte biga

*Inoiz ez da berandu ikasteko. Horregatik, urtetik urtera Tolosako HHI (Helduentzako Hezkuntza Iraunkorra) zentroko matrikulazio kopurua igotzen ari da. Aurten 500 ikaslelik gora izango dituzte Tolosako Izaskun auzoko egoitzan. Ez da gutxiagorako. Bere garaian titulaziorik lortu ezin izan zutenentzat, HHI akademikoki formatzeko bigarren aukera da.*

*Erredakzioa*

**M**atrikulazio kanpaina puri-purian zegoela bisitatu zuen Galtzaundik Tolosako HHI-k Izaskun auzoan duen egoitza. Idazkaritzan etengabekoa zen jendearen joan-etorria. “Matrikulazio epea amaitu baino lehen talde batzuk itxi beharrean gaude”, esan zuen Ma-

rian Agirre Tolosako HHI-ko zuzendariak. Izan ere urtetik urtera matrikulatuen kopurua igotzen ari da. “Duela hiru urte 270 ikasle izan genituen, iaz 500 izan ziren eta aurten marka hori hautsiko dugu”, esan zuen oraindik matrikulazio epea ixteko egun batzuk falta zirela. Jende guzti hori hartzeko, egoitza zaharraren ondoan beste eraikin bat zabaldu zuten iaz.

Tolosako HHI-k bere hogeigarren urteurrena ospatu du aurten. Bi hamarkadatan Tolosako zentroan izan den eboluzioak, Euskadiko HHI-EPA egitasmoak jasan duen bilakaera islatzen du. “80. hamarkadan Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egitasmo hau martxan jarri zuenetik gaur arte, gauzak asko aldatu dira. Hasiera batean, HHI-n izena ematen zutenak irakurtzen eta idazten ez zekiten

pertsona helduak ziren. Gaur egun gero eta jende prestatua goa matrikulatzen da”. Hori ez da ordea helduentzako formakuntza sistema honek jasan duen aldaketa bakarra. Titulazio eta ikastaro eskaintza asko zabaldu da. “Hasierako urteetan Hezkuntza Sailaren asmoa hezkuntza arautua ematea zen. Denborarekin, konturatu ginen jendeak beste gauza batzuk eskatzen zituela: hizkuntzak, unibertsitaterako sarbidea prestatzea, informatika eskolak...”. 1998an martxan jarri zen DBH-k (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) eragina izan zuen ikasketen ugaritze horretan. “DBH emateko irakasleak lizentziatuak izatea exijitu zen. Baldintza horrek berak, titulazio gehiago eskaintzeko ateak zabaldu zizkigun”. Era honetan, gaur egun DBH, hizkuntzak, memoria lantzeko ikastaroak,

informatika hastapenak, unibertsitate eta goi mailako zikloetarako sarbidea, irakurketa eta idazketa hastapenak, etorkinentzako gaztelania eskolak, oinarrizko ezagueretan sakontzea eta arte zikloa dira eskaintzen dituzten aukerak.

## HAMAIIKA IKASGAI, HAMAIIKA IKASLE

Helburu eta interes ezberdinak dituen jendea joaten da Tolosako HHI zentrorra. Marian Agirrek hiru multzo ezberdinetan bereizi ditu ikasle motak: Lehenengo multzoan pertsona helduak aipatu ditu. “Batez ere etxeko andreak, ikasi eta jendea ezagutzeko izena ematen dutenak”. Bigarren multzoan etorkinak leudeke. Hauen arazo nagusia hizkuntza izaten denez, lehenik gaztelera edo euskara erakusten diete eta ondoren DBH edo bestelako ikasketak



Tolosako HHI-k iaz zabaldu zuen eraikin berria.

MARKA HAUTSI DUTE

# arren aukera ematen

bat egitera bultzatzen dituzte. “Iazko kurtsoan lau talde izan genituen. Bat etorri berriekin eta besteak hizkuntza menperatzen zutenekin. Gehienbat gizona ezkoak izaten dira”. Hirugarren multzoa osatzen dutenak berriz, DBH egiteko helburua dutenak dira. Hemen bi ikasle mota ezberdintzen dituzte: Lehenik ikasle gazteak daude, nerabe garaian eskolan porrot egin dutenak. “Bere garaian DBH ez amaitzeak, askotan, ez du esan nahi pertsona horrek ikasteko balio ez duenik”, dio Jose Mari Sasieta ikasketa buruak, “nerabezaroa oso garai txarra izaten da eta ikaslea eskola-porrotera bultzatzen duten faktore asko egon litezke”. Horregatik pertsona hauentzat HHI bigarren aukera bat da. Bestalde, helduen taldea dago. Sasieta eta Agirreren hitzetan langileak dira gehienak. “Euren lan postuan jarraitu edo enpresan gora egiteko, ziklo bat eskatzen diete askori, eta horretarako, lehenik, DBH egitera etortzen dira”. Kasu hau gero eta gehiago errepikatzen ari dela nabarmendu dute.

HHI-k titulazio bat ateratzeko bidezidor ezberdinak eskaintzen ditu. Besteak beste, DBH bi urtetan egin daiteke, lehenengo bi zikloak urte batean ematen baitituzte eta azkeneko biak bigarrengoan. Le-

hengo graduatua dutenek berriz, bigarren zikloa egin behar dute soilik, hau da, hauek urte bat beharko lukete DBH titulua eskuratzeko. Ikasgai guztiak berriz, hiru bloke ezberdinetan biltzen dituzte: bloke sozialean, bloke zientifikoan eta komunikazio blokean. Arratsaldean hiru orduko eskolak izaten dira egunero. Goizez Villabonan egoten dira eta astean behin Alegian eta Anoetan. Tolosako HHI gainera, DBH D erudian egiteko aukera ematen duen zentro bakarra da Gipuzkoan. “Orain unibertsitaterako sarbidea ere euskaraz eskaintzeko ahaleginetan ari gara baina irakaslegoarekin arazoak ditugu”, dio zuzendariak. Batzuen ikuspuntutik bidegabea izango den arren, HHI-k unibertsitaterako atak zabaltzen dizkio ikasleari urte beteko epean. 25 urtetik gora edukitzea; hori da unibertsitateko sarbidea egiteko eskatzen den baldintza bakarra. Ez da beharrezkoa DBH eginda edukitzea. “Ikasle ohi asko daude graduatuarekin edo ezer gabe etorri zirenak eta gaur egun unibertsitateko titulazio bat dute”.

## HHI-REN IRUDI OKERRA ZUZENDUZ

“Bigarren aukera bada errazagoa da”, pentsa dezake jen-



Liburutegia auzora ere irekita egongo da.

deak. Agirre eta Sasieta araberak hori ez da guztiz okerra, baina euren hitzetan gezur borobila litzateke titulazioak oparitu egiten dituztela esatea. “Gure ikasleek selektibitate egiten edo goi mailako ziklo batean amaitu behar badute, horretarako prestatu behar ditugu”. Bi irakasleak bat etorri dira HHI-k gizartean duen irudia azaltzeko orduan: “Jendeak uste du hemen emakume helduak elkartzen direla elkarrekin tertulian aritzeko. Hori ez da horrela. Jendea ikastera etortzen da. Oso ikasle exijenteak dira gainera”, gaineratu dute. Horrekin batera ikaskideen artean sortzen den giro ona azpimarratu dute Tolosako HHI-n. Ikasle-irakasle harremana oso gertukoa dela ere azaldu du Agirrek: “Oso gustura etortzen gara lanera. Oso atsegina da egunero-egunero ikasteko

gogoz dauden ikasleak topatzea”. HHI-ko irakasleei satisfakziorik handiena ematen diena, jendeari ikasteko bigarren aukera hori eskaintzea da. Ikasketa buruak, lehenengo graduatua dutenak animatu nahi ditu bereziki. Izan ere, “jendeak ez daki graduatu zaharrak gaur egun ez duela baliorik, eta urte betean egungo DBH atera dezakete”, azpimarratu nahi izan du.

Eskolak hilabete honen 17. egunean hasi ziren Izaskun auzoko egoitzan. Matrikulazio epea amaiturik dagoen arren, salbuespenak ere onartzen dituztela azaldu dute. “Denei eman nahi diegu ikasteko aukera”, errepikatu dute behin eta berriz. Hala ere, otsailean berriro zabalduko da matrikulazio epea. Nahi duenak badu bigarren aukera bat .

**Zumardi**  
SEGUROS BILBAO  
Aholkularitza integrala  
Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

**Beatriz**  
Dekorazioa  
Donostia - Tolosa

Donostia	Donostia	Tolosa
San Martin, 16 943 425 886	Garibai, 8 943 420 259	Rondilla, 11 943 670 615
943 420 187	943 430 947	943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak (bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

**JANTZIAK**  
**OSKI**  
oiñetakoak  
Nafarroa Etorbidea, 11  
Tel.: 943 651 264 - TOLOSA

**TOLOSA >>>** TOLOSALDEKO TELEBISTAK PROGRAMAZIO BERRIA ESTREINATUKO DU URRIAN

# 28 Kanala, sendotzen, zabalt

*28 Kanalak bere hirugarren kurtsoa abiatuko du urriaren hasieran. Bere sorreratik hasita gaur arte erronka ugari gainditu behar izan ditu. Apusturik handienak ordea egiteko ditu oraindik: TDT sisteman emititzen hastea eta programazioa sendotzea alegia. Hastera doan kurtso hau gakoa izango da helburu horiek lortzeko.*

Erredakzioa

**K**omunikabide baten ibilbidean, bi urte zati txiki bat izan daiteke, baina nahikoa komunikabide ho-

rrek bere hedadura esparrua izango dena ezagutu dezan, eta berau ere ezagutua izan dadin. Tolosaldeko herritarrak ohitu dira jada bere herriko kale eta aretoetan kamera bat ikusten, eta familia asko izango dira, egun bere etxeko telebistan 28 Kanala sintonizatzen dutenak.

Eskualdeko Telebista sortzeko hainbat saiakerak porrot egin ondoren, azkenik 2006an lortu zen Tolosaldeko Telebista martxan jartzea. Jon Aldanondo 28 Kanaleko zuzendariaren hitzetan, porrot guzti horien ostean Tolosaldeko Telebista sortzeko eskaera jaso zuten jada lanean hasia zegoen

Goierriko Telebistan. “Tolosaldea Garatzen agentziak egin zigun eskaera. Eurek bazekiten Goierriin telebista martxan zegoela, eta gure esperientzia baliatuz, Tolosaldean telebista bat sortu nahi zutela esan ziguten”. Hura telebista bat sortzeko azken trenea izan zen, orduan banatu behar baitzuten Eusko Jaurlaritzak tokiko telebistentzako lizentziak. Emititzeko lizentzia hori eskuratzeko telebistak martxan egon behar zuten.

28 Kanalaren hastapeneko pausoak Goierriin eman ziren. “Hango azpiegitura erabili genuen eta Ordiziatik egin genuen lan”. Gero, San Estebango egoitzara

*“Urte honen amaieran Eusko Jaurlaritzarekin frekuentziaren gaineko kontratua sinatu behar dugu”*

igaro zen hasiera hartan sortutako lan taldea. Lanean hasi zirenerako argi eta garbi zuten zeintzuk ziren Tolosaldeko telebistaren helburuak: “Euskaraz telebista bat egitea eta tokiko informazioa ematea”.

Hasiera guztiak izaten dira zailak, baina 28 Kanalak Tokiko Telebista Sarearen babesa izan du. “Guretzat telebista sortzea ez da zero-tik hastea izan. Esperientzia



28 kanaleko lan taldea plato berrian.

## zen

duen jendea izan dugu aldamenean". Sarea osatzen duten tokiko telebisten laguntza nabarmena da programazioan. Etxean egindako informatibo eta zenbait saioez gain, 28 Kanalaren parrila Tokiko-ko partaide diren telebisten programekin elikatu da. Edukietan ez ezik, Tolosaldeko Telebistak salto handia eman du seinalearen hedaduran. "Hasierran Tolosan hasi ginen emititzen baina gerora Villabona eta inguruetara zabaldugenuen seinalea". Zuzendaria hitzetan eskualdearen egungo hedadurak. Denbora gutxiren buruan martxan jarriko duten TDT sistemarekin ordea %95 hartzera iritsiko direla ziurtatu du.

## PROGRAMAZIO BERRIA

Urrian ekingo dio eskualdeko telebistak kurtso berriari. Programazio sendo eta berri bat prestatu dute hirugarren ikasturterako. "Gure erronketako bat da programazioa sendotzea", dio Aldanondok. Lau orduko blokeetan antolatuko dute eguneko emisioa. Aurreko kurtsoan bezala, *Tolosaldean Gaur* informatiboa eta *28 Klip* musika saioa es-

kaintzen jarraituko dute. Berrikuntzen artean *Mugaz Kanpo* saioa egongo da. "Bidaiei buruzko saioa izango da. Eskualdeko bidaiari ezberdinak igaroko dira platotik eta Itziar Mujikak elkarrizketa egingo die", azaldu du Gorka Sagarna 28 Kanaleko langileak. Honekin batera 38º saioa ere estreinatuko dute. "Gazteei zuzendutako programa da hau". Kirolak ere tarte berezia izango du *Tolosaldean Gaur* informatiboaren ostean eta asteburuetan. Eguneroko saio hauetaz gain ordea, tarteka saio bereziak egingo dituzte. Lehen urriaren 5an Iruran ospatuko den Kilometroak jaiari eskainia egongo da. "Ibilbidean plato bat jarriko dugu jaiaren egunean eta bertatik hainbat pertsona ezagun igaroko dira", adierazi du Sagarnak. Saio hau asteartean, hilaren 7an eskainiko dute eguerdiko 14:00etan eta gaueko 22:00etan.

Etxean ekoiztutako saioekin batera, Euskal Herriko beste Tokiko telebistetan egiten dituzten saio ezberdinak ikusteko aukera ere egongo da. Hartu ez ezik eman ere egingo dio 28 Kanalak Tokiko sareari, Tolosaldeko Telebistak egindako



Webgune berrian bideoak, berriak eta bestelako edukiak aurkituko dituzu.

programak taldeko beste telebistetan ikusi ahal izango direlarik. Marrazki bizidun berriak izango dituztela ere baieztatu dute. Guzti honekin batera, astero astero ikus-entzuleen artean sari ezberdinen zozketak egingo dituzte.

Programazioarekin batera 28 Kanalean berrikuntza da duela gutxi martxan jarri duten webgunea. "www.28kanala.com atarian bideoak ikusiko dituzte ikus-entzuleek, guk daukagun bide komunikatiboa irudia baita". Kanean jazotako gertakarien gaineko bideoez gain, berriak, zozketak, programazioa eta bestelako edukiez horniturik dago web gunea.

## TDTA HURRENGO ERRONKA

Lehen aipatu moduan, 28 Kanalaren hurrengo apustua TDT sistemaren emititzen hasitea izango da. "Urte honen amaieran Eusko Jaurlaritzarekin frekuentziaren gaineko kontratua sinatu behar dugu. Behin pausu hau emanda 18 hilabeteko epea izango dugu seinale digitalean emititzen hasteko", dio Aldanondok. Seinale analogikotik seinale digitalera igarotzen direnean, 28 Kanalaren hedadura %95era igoko dela diote bertako arduradunek. Horrela, Tolosaldeko telebistak beste erronka handi bat gaudituko du. Ziur asko ordea, ez da bere ibilbidean gaudituko beharko duen azken erronka izango. ■

## J. San Sebastian MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

Zure publizitatea  
hemen  
943 655 004

## ZALBIDE Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.  
Ostirala, larunbata eta igande  
eguerditan irekita, iluntzetan  
egunero.

Zalbide baseria - Abaltzisketa  
Tel: 943 652 176

# Xabier Iturrioz

## Gazte bat aldarean

Leire Zubeldia

**J**Gutxitan ikusten da gazte bat aldarean. 31 urterekin Xabier Gipuzkoako apaizik gazteentarikoa da. “Aian eta Orion dagoen apaiza ni baino gazteagoa da, hurrengoa ni izango naiz eta hortik aurrera apaiz mordoxka bat dago bi edo hiru urteko aldearekin”, azaldu du Iturriozek. Donostiako Gros auzoko apaiztegian egin zituen ikasketak alegiar gazteak. “Guk zortea izan genuen. 12 ikaskide ginen apaiztegian. Uste dut orain hiru apaizgai bakarrik daudela”. Xabierrek garai bateko apaizen eta gaur egungoen prestaketak alderatu ditu. “Gauzak asko aldatu dira. Lehen 12 urteko ikasketak izaten ziren, latina ikasi beharra zegoen eta internoak ziren. Gaur egun 6 urteko ikasketak dira, latina ez da ikasketa planean sartzen eta asteburuetan etxera etortzeko aukera izaten dute apaizgaiek”. Ikasketa teorikoak amaitu eta praktikak Villabonan egin zituen. Bertan ari zela, 2004an apaiztu zen. “Villabonan eman nituen apaiz moduan lehenengo urratsak, baina nire ardurapean hartu nuen lehenengo parroikia Adunakoa izan zen”. Hiru urte eman zituen Xabierrek Adunan, iaz Berastegira etorri zen arte.

Lekualdaketak “zaplastekoak” izaten dira apaizentzat. Alegiarrari ere gogorra egin zitzaion Aduna utzi eta Berastegira etortzea. “Herri berri batera joatea zerotik hastea da. Herria eta herritarrek ezagutu behar dituzu, bilerak egin behar dituzu.

**28 urte zituela 2004an apaiztu zen Xabier Iturrioz (Alegia, 1977). Villabonan praktikak egin ondoren, Adunan hiru urte igaro zituen. Iaz, Berastegin jarri zen bizitzen eta gaur egun Berastegi, Berrobi, Elduain eta Elduko erretorea da. Lekualdatzea gogorra egin bazaiore, ederki moldatu da Xabier bere lantoki eta bizitoki berrira. Lau herrietako biztanleekin ahalik eta denbora gehien egoten saiatzen da, nahiz eta lanak horretarako tarte gutxi uzten dion.**

herrietako elizkizunak gidatzen ditu. “Igandeetan korrika ibiltzen naiz batetik bestera. Meza ostean ezin izaten dut herritarrekin egon. Gauean jendearekin batera afaltzeko ohitura dut. Herritarrek hori eskatzen baitiote apaizari, beraiekin egoteko tarte hartzea”.



Xabier Iturrioz Berrobiko eliza atarian.

Dena jarri behar da martxan”. Urte bete hau nahikoa izan da apaiz gaztearentzat bere lantoki eta bizitoki berrian normaltasuna berreskuratzeko. “Oso gusturago hemen, herritarrek oso ondo hartu naute”, dio.

### APAIZ LANPETUA

Prestaketa soilik ez, apaizen bizimodua ere aldatu egin da. Egungo apaizek agenda estua dute, eta Xa-

bier da horren adibide garbia: Astearteetan katekisia ematen du Elduain eta Berrobin. Asteazkenetan, Berastegin egoten da, lehenik katekisia eta gero meza ematen. Ostegunetan Berrobiko gazteekin sendotza izaten du. Ostiraletan gaixoei bisitak egiten dizkie komunioa emanetz, eta sendotza ematen die Berastegiko bi taldeei. Larunbatetan meza egoten da Eldun, eta Igandetean hiru

Egun lanean ari diren apaizak ez dira iristen herri guztietan igandeko meza emateko. “Leaburun, Be-launtzan eta Gaztelun esate baterako erretorerik gabe daude orain”. Arazo honen irtenbidea “herritarrek meza emateko ardurak hartzea” izango litzatekeela uste du alegiarrak. Fededun elkarteak dira elizaren etorkizuna, eta noski, baita Xabier bezalako erretore gazteak ere. ■



# Tolosa Bit

## Informatika Zerbitzuak

Hamar urte bete berri ditu Oria kaleko 14. zenbakian dagoen Tolosa Bit informatika dendak. Denbora horretan informatika abiada bizian garatu da. Alfredo eta Beñat, Tolosa Bit-eko arduradunak garapen izugarri horren lekuko izan dira.

Oria kalea, 14-behea Tolosa • Tel.: 943 676 156 • Faxa: 943 016 857 • tolosabit@facilnet.es • www.tolosabit.es

# 10 urte informatikaren gurpilean

Informatikaren gurpil zorian sartu eta bilakaera horren erritmoraren bere eskaintza zabalduz joan da Tolosa Bit, eman beharrekiko zerbitzua garaian-garaiko beharretara egokituz.

## ETENGABE AURRERA DOAN GURPILA

Duela hamar urte, Gorriti plazan (lehenengo bost urteak eman zituzten bertan) Tolosa Bit dendak zabaldu zenetik hona informatikaren alorra asko aldatu da. “Hasi ginenean, sistema operatibo gisa Windows 95 eta Windows 98-a erabiltzen ziren. Ekipoak pentium II motakoak ziren 32 edo 64 Mb zituztelarik. Disko gogorrak berriz 2 edo 4 Gb-ekoak ziren”, azaldu du Alfredo Tolosa Bit Informatika Zerbitzuko arduradunak. Gaur egungo egoerak ordea ez du orain arte kontatutakoarekin zerikusirik. “Informatikak izugarriko jautzia eman du: Batetik, sistema operatiboak asko aldatu eta ugartu dira. Bestalde, oraingo ordenagailuek bi edo lau nukleotako prozesadoreak dituzte, Ram Memoriak bi edo lau Gb-ekoak dira eta disko gogorrak izugarriko gaitasuna dute, 250 eta 500 G-koak hain justu ere. Ordenagailuen itxura ere aldatu egin da. Ez daude alderatzerik lehenengo ordenagailuek zituzten kaxa eta pantaila handiak egungo pantaila lau eta kaxa estuekin. Poltsikoaren mesederako, ordenagailuen prezioak ere asko apaldu dira. Alfredoren ustez, bereziki nabarmena da hori ordena-



10. urteurrena ospatzeko ordenagailu ultraeramangarri hau zozketatuko dute irailaren amaieran.

gailu eramangarrien kasuan. “Ordenagailu hauek oso garestiak ziren orain dela hamar urte. Gaur egun ordea merkeak dira”. Horregatik, ordenagailu eramangarrien eskaera gero eta handiagoa da. Aipatutako aparatu mugikorren hedapenari esker, eta nola ez, Interneten eraginez, ordenagailuaren erabilera itzuli handi bat eman du. Horrela, lehen lanerako tresna zena, gaur denborapasarako lagun paregabea da.

## LAGUN BANAEZINA

Ordenagailuen garapenerakin eta interneten hedapenarekin batera hainbat tresna berri sortu dira azken hamarkada honetan: argazki kamera digitalak, mp 3 irakurgailuak, mp 4-ak... Tresna guzti hauen erabilera beharrezkoa da ordenagailuan. “Ondorioz, jendeak ordenagailuarekiko gero eta dependentzia gehiago du. Horrela, gaur egun ohikoa da etxe batean 3 ordena-

gailu edukitzea”, dio informatikari tolosarrak. Aipatutako tresna hauetaz gain ezin aipatu gabeko utzi ordenagailuekin batera gartzen joan diren inprimagailuak. “Inpresioaren eta ezaugarrien aldetik asko hobetu dira”.

Hamarkada honetan aurrerabide handia egin du informatikak. Gurpila ordea ez da geratu. Aurrera egingo du helmugara iritsi arte. Baina informatikaren bideak ba al du ba amaierarik? ■

## Garapeneran erritmoraren

Sortu zenetik informatikaren gurpilean joan da Tolosa Bit, bere eskaintza garaian-garaiko beharretara egokituz. Egun ordenagailuak saltzen dituzte bai finkoak eta baita eramangarriak ere. Etxe jakin batzuekin egiten dute lan, baina edozein etxetako ordenagailu jar dezakete bezeroaren eskura. Horretaz gain, bezeroaren beharretara zein aurrekontura egokitzen dituzte, edozein ezaugarri eta prezioetakoak.

Ordenagailu salmentaz

gain, Tolosa Biten hasieratik oso argi izan dute zerbitzu tekniko eskaintzearen garrantzia. “Oso erraza da ordenagailua erostea baina gero zerbitzu tekniko egokirik ez dago”, dio Alfredok. Bere ustez, ordenagailuaren erabilera esparrua zabaltean zerbitzu teknikoaren beharra ere handitu egin da. Era honetan, konponketak egiten dituzte, bai ordenagailu pertsonalekin eta baita enpresetakoekin ere. Honekin batera, mantentze zerbitzua ere eskaintzen diete enpresei.

# EUSKAL HERRIA

# Basatia

NATURAREN GIDALIBURU NAGUSIA

Irailaren  
27an

LEHENA  
DOANI!

KARPETA  
OPARI!

Eskura ezazu **berriarekin**

## EUSKAL HERRIKO NATURAREN GIDALIBURU NAGUSIA



### NOLA ESKURATU?

- Irailaren 27tik azaroaren 1era **larunbatero** zure kioskoan **berriarekin**



### HARPIDEDUNENTZAT

#### bilduma osoa 25 euroren truke

- **Noiz egin eskaera?** Irailaren 23tik urriaren 12ra
- **Hiru aukera eskaera egiteko!**
  - Telefonoz: **943-30 43 45**
  - Posta elektronikoz: **harpidetza@berria.info**
  - Webgunean eskaria eginez: **www.berria.info**

\*Eskaria egiteko, harpidedun kodea beharrezkoa da.

- Ipar Euskal Herriko irakurleek zuzenean deitu behar duzue Harpidetza sailera eskaera egiteko: **(0034) 943-30 43 45**





# Igor Obeso, kristalaren ertzak desafiatuz

ERA GUZTIETAKO PIEZAK EGITEN DITU IGOR OBESOK KRISTALA ERABILIZ IRURAN DUEN TAILERREAN

Leire Zubeldia

**H**ondarribian jaio, Tolosan bizi eta Iruran egiten du lan Igor Obeso artisauak. N-1 errepidean Tolosako norabidean goazela ikus daiteke letra handiz idatzita *Argia Badago*. Bertan igarotzen ditu eguneko ordurik gehienak artisau gazteak. Atea jo eta barrura sartu da Galtzaundi. Duela hiru urte tailerra ireki zuenetik hona egindako piezatak batzuk biltzen dituen erakusketa ikus daiteke alde batean. Tailerraren zatiarik handiena ordea, lanerako erabiltzen du artistak. Era guztiarako erramientak, labeak eta batez ere, kristala aurkitu daiteke.

**Hauskorra, ahula izan daiteke, eta aldi berean, arrisku-tsua da bere ertz zorrotzekin. Hauxe da kristalaz dakiguna. Baina beirak hori baino izaera zabalagoa du: puztu egin daiteke, urtu, forma eman, zulatu... Igor Obesoren ustez kristala da material guztietan anitzena. Bere ertz zorrotzak desfiatzen ditu egunero Iruran dagoen *Argia Badago* tailerrean.**

Bere lanaren gaineko xehetasun guztiak eman dizkio Igorrek Galtzaundiri. Bide batez, artisauak irurarrei ere bere tailerra ezagutzeko gonbita luzatu nahi izan die.

**Noiz eta nola hasi zinen zu kristala lantzen?**

Duela hamaika urte hasi nintzen kristalarekin lanean. Poli-ki-poliki hasi nintzen. Lehenik eta behin teknika ezberdinak

ikasi nituen. Gero, hauek aplikatzen hasi nintzen pixkanaka.

**Zure kabuz ikasi zenuen edo ikasketa berezi batzuk egin zenituen?**

Norberak egindako lanarengandik asko ikas daiteke, baina prozesu luzea da. Ni horrela ibili nintzen lehenengo urteetan. Zenbait ikastaro egin ditut eta artisau batzuekin ere ibili naiz euren tailerretan lan egiten. Esate baterako, Ipar Euskal

Herrian denbora puxka batean aritu nintzen artisau batekin. Txekiar Errepublikan ere egon naiz eta European zehar bidaiatu dut kristala lantzen duten tailerrak ikusiz. Alderantzizko prozesua ere egin dut. Hau da; nik ere kanpoko jendea gonbidatu dut nire tailerrera. European beira eskolak daude eta bertako ikasleak kanpora joaten dira praktikak egitera. Horrela, Canada, Danimarka, Estatu Batuak eta Norvegiako jendea izan dut nire tailerrean. Nik eurei dakindana erakutsi diet eta eurek niri dakitena erakutsi didate.

**Noiz zabaldu zenuen *Argia Badago*?**

Hiru urte daramatzat Iruran. Izen bat jarri behar nion taile-

(hurrengo orrian jarraitzen du)



Kristala urtu, puztu, zulatu... egin daiteke.

rrari eta "Argia Badago" jartzea bururatu zitzaidan. Kristala eta argiarekin lan egiten dudanez, izen horixe gustatzen zait.

#### **Zer da Argia Badago? Zer egiten duzu tailer honetan?**

Kristalarekin produktu ezberdinak egiten ditut: Esate baterako beirateak; hauek era eta motibo ezberdinetakoak izan daitezke. Lanparak ere egiten ditut; sabaian jartzekoak, argi-mutilak, aplikak... Gainontzean, oroigarriak, sariak, platerak... Gehienbat enkarguz egiten dut lan, eta eskatzen didaten edozer egin dezaket. Jendeak gauza arraroak nahi izaten ditu askotan: pertxeroak, dekorazioko pieza bitxiak. Denetik egin daiteke.

#### **Objektu hauetaz gain kristalarekin eskulturak ere egiten dituzu...**

Bai, gustukoa dut nire buruan sortzen ditudan piezak egitea. Gertatzen dena zera da, hauei irtenbidea ematea oso zaila dela. Hala ere, pieza ezberdinak egiten joaten naiz, eta pixkanaka-pixkanaka, neure bilduma osatzen dut. Eskultura sor-

ta bat daukadanean, eta sortak zentzu bat hartzen duenean, erakusketa batean erakusten saiatzen naiz. Azkenaldi honetan erakusketa gutxi egin ditut, baina hainbat aretotan egon izan dira nire lanak. Gehien bat, hemendik kanpora ibili naiz, Euskal Herrian ia ez baitago kristalezko artelanekin lan egiten duen galeriarik.

#### **Zer nolako materiala da kristala. Zein alde on eta zein alde txar ditu?**

Material honek dituen ezaugarri txarrak dira, alde batetik, moztu egiten duela, eta bestetik, kristala lantzeko garaian erre egiten zarela, kristala urtu eta forma eman ahal izateko gradu askotara berotzen baita. Azkenik, kristalarekin lan egiteko erramienta bereziak behar dira, eta hauek oso garestiak dira. Material honek ordea alde txarrak baino alde on gehiago ditu. Dena dauka ona. Niretzat materialik polibalenteena da. Aukera gehien beirak ematen ditu. Hasteko bere konposizioa kontrolatu dezaket. Beira mota asko lortu daitezke. Gero puztu egin daiteke, oker-

tu egin daiteke, moztu egin daiteke, margotu, zerratu, taladratu... denetarik egin dezakegu kristalarekin. Hau guztia harrigarria iruditzen zaio jendeari. Kristala edalontzietan eta auto-etako leihoetan ikustera ohituta gaude.

#### **Zuk enkargu bat jaso eta lana amaitu artean zein da egin beharreko prozesua?**

Lehenik eta behin bezeroa etortzen da tailerrera, edo ni joaten naiz berarengana zer motatako lana nahi duen jakiteko. Behin lana ezagututa, bozeto bat egin eta zein teknika behar duen erabakitzen dut. Pieza batzuk egiteko beira puztuaren teknika behar izaten da, besteetan, beira fundituarena, eta horrela, teknika asko daude. Teknika bakoitzak labe mota bat eta erramienta jakin batzuk eskatzen ditu. Azaldutako guzti hau egitea nahi dugun piezaren arabera izaten da, baina lan guztietan funtsezkoa da, kristal konposizio bat egitea eta hau 900 gradutara berotzea. Horrela, kristala urtu egiten da, ezta

*"Beirak egoera asko izan ditzake. Egoera bakoitzean material ezberdin bat da."*

balitz bezala geratzen da. Hortik aurrera nahi den tratamendua eman dakioko.

#### **Askotan entzun izan da kristala materiala baino gehiago materialaren egoera bat dela. Hala al da?**

Hori argitzea zaila da. Batzuk esaten dute kristala metal bat dela, konposizio batekin sortuta baitago. Bestetik, kontutuan hartu behar da, kristalak egoera bat baino gehiago dituela, eta nik esango nuke, egoera bakoitzean material ezberdin bat dela: Material mota bat da, guk ezagutzen dugun moduan gogortuta dagoenean, baina guztiz bestelako materiala da urtuta dagoenean.

#### **Horrenbeste material dagoen garai hauetan baloratuta al dago kristala?**

Lehen oso baloratuta zegoen kristala, oso murrizta baitzen. Euskal Herrian inoiz ez da egon kristalaren kulturarik eta kulturarik ez badago ez dago enpresarik. Kanpotik ekarri beharra zegoen. Garraioa garestia zenez, ekartzen zen kristala oso prezio altuan saltzen zen. Horregatik zen guztia egurrezkoa edo buztinezkoa. Beraz, kristala preziatua zen oso. Baina urteak pasa ahala, prozesua industrializatu egin da. Gaur egun, ardo edo ur marka guztiek dute bere kristalezko botila. Industriak kristala erabiltzeko duen erak ordea ez du zerikusirik artisauok dugun kristala lantzeko moduarekin. Materiala berdina da, baina prozesua ezberdinak dira. Nire ustez, artisautzan ere zabaltzen ari da kristalaren kultura. Azoketan gero eta postu gehiago ikusten dira eta dendetan ere gero eta kristal gehiago dago salgai.

### Kristala hauskorra da. Jendeak erreparoa al dio oraindik?

Beldur hori galtzen doa pixkanaka. Hauskorra dela ezin da ukatu, baina kristal mota ezberdin asko daude. Orain eraikin askotako lurra kristalarekin egiten da. Kristala oso gogorra eta segurua izan daiteke. Material honen gaineko ezjakintasun handia dago.

### Kristalaren kultura aipatu duzu lehen. Zein herrialdetan dago kultura hori bizien?

Europan oso zabaldua dago kristala. Hemen metala erabiltzen dugun moduan Txekiar Errepublikan kristala da nagusi. Hirumila biztanleko herri batean hirurogehi beira tailer aurkitu daitezke. Eibarren metala lantzen den moduan, hango zenbait herrietan kristala lantzen da. Eskola artistikoak, zentru pribatuak eta zikloak daude kristalgintzan trebatzeko. Mundu bat mugitzen da kristalaren inguruan. Hori guztia lortzea ezinezkoa da hemen. Herrialde horiek mendeak daramatzate kristalarekin lanean. Hemen ongi egongo litzateke eskola bat zabaltzea. Nik buruan izan dudana da hori, baina oso zaila da.

### Ze motatako bezeroekin egiten duzu lan?

Era guztietako bezeroak ditut. Gehien bat bezero partikularrak izaten dira. Askotan hotelak eta tabernak izaten dira. Federazio ezberdinetatik ere etorri izan zaizkit.

### Irurarrak gerturatzeko zaizkizu tailerretara?

Uste dut denek dakitela hemen nagoela. Batzuk etor-

*“Kristalaren gainean ezjakintasun handia dago gaur egun.”*

tzen dira tailerra ikustera, baina esango nuke gehienak ez direla sartzera ausartzen. Tailerra egunero egoten da zabalik. Herritar guztiak gonbidatuta daude barrura sartu eta tailerra zein erakusketa ikustera.

### Kristala lantzen duen artisau moduan baduzu ametsik betetzeko?

Bai noski. Hontan jardun eta ikasten jarraitzea. Hau dut gustuko, eta egunez egun, hontan egin nahi nuke lan aurrerantzean ere. Horretaz gain gustatuko litzaidake eskola batzuk ematea. Baina hori posible ez bada orain artean bezala jarraitzearekin konformatzen naiz. ■



Kristalarekin egiten dituen lanak tailerretan erakusgai ditu Igorrek.

 **kutxa**

## SANTA LUZIA GARAGEA



Grua zerbitzua 24 orduetan

943 653 491 943 653 874  
943 653 985 943 806 020  
Santa Luzia, 1 TOLOSA

## IRATZAR

Erlojutegia • Konponketak  
Zilar gaietan berezitasuna  
Diseinuko zilarra  
Bisuteria

Santa Maria Plaza, 1 - Nagusia  
TOLOSA • Tel.: 943 674 615



Argi lanak, antenak  
eta portero automatikoak

Apaiz-Erreka, 5 • 20400 IBARRA  
Tel.: 943 675 878 • Faxa: 943 674 181  
Mobila: 639 72 42 60

## KONTSULTA PSIKOLOGIKOA

Íñigo Jiménez

Psikologoa eta terapeuta gestaltikoa

Sta. M<sup>a</sup> de la Asunción klinika

Gazte eta helduak | Dependentsia eta  
Dolu-terapia | menpekotasun  
Psikoterapia-prozesua | terapiak: tabakismoa  
Ordutegia: ostegunetan, 15:00 - 18:00



**ONAK**  
MARMOLAK, S.A.

Mota guztietako lanak:  
Granitoan marmolean eta  
beste harri batzuetan

Errazu poligonoa • Sailsa, 1 • URUJETA  
Tel.: 943 331 227 • Faxa: 943 008 613

**ARRAUNA >>>** AZKEN ESTROPADARAKO SAILKAPENA LORTU EZ ZUTEN ARREN OSO GUSTURA DAUDE TAKEN

# TAKeko neskek harro

*"Igandeko probarako sailkatzea lortu ez genuen arren, oso lan ona egin genuela uste dugu". Horixe diote TAKeko neskek behin eta berriz. Pozik eta harro daude egindako lanarekin. Emakumeen I. Kontxako Banderan parte hartze hutsa, sari bat dela diote arraunlariek. Galiziak eraman zuen bandera, baina irailaren 14an, irabazle nagusia emakumezkoen arrauna izan zen.*

Leire Zubeldia

**K**ontxako Banderaren historia luzean mugarri izan zen irailaren 14a. Astillerok ateratako hamar segunduko aldeak utzi zuen TAKeko ontzia egun historiko horretatik kanpo. Hala ere Tolosaldeko arraunlarien artean ez dago tristurarako motiborik. Alderantziz, "oso gustura eta harro" daude egindako lanarekin. "Gure helburua igandeko azken estropadarako sailkatzea zen, baina aldi berean, bagenekien arerio gogorrek izango genitue-la", diote arraunlariek. Izan ere, TAKeko ontzia selekzio indartsuekin batera uretaratu zen. Traineru irabalzea Galiziako arraun klubetako kideekin osaturik zegoen, bigarren geratu zen Astillero ontzian ere Kantabriako arraunlari onenak bildu zituzten eta Arkote Bizkaiko Selekzio moduan itsasoratu zen Donostiako badian. "Hau guztia kontutan hartuta oso maila ona eman genuela iruditzen zaigu", gaineratu dute.



TAKeko ontzia portutik estropada eremura bidean.

## LAU METROKO OLATUEN GAINEAN TINKO

"Izugarría izan zen", gogoratu dute neskek. Lau metroko olatuen artean egin zuten arraun. Itsaso zakarrarekin uretaratu ziren Tolosaldeko neskek, Galizia, Astillero eta Katalanekin batera. "Pentsatzen genuen estropada bertan behera geratuko zela. Izugarritzko espektakulua eman genuen. Jendeak gogotik gozatu behar zuen ikuskizun horrekin. Lau metroko olatuen gainean arraun egiteko gai garela demostratu genuen". Bigarren txandan uretaratu ziren ontziek baldintza hobeagotan egin zuten arraun. "Eguraldia hobetu egin zen, nabarmen gainera".

Igandeko estropada ere ikusgarria izan zen eskualdeko arraunlarien arabera. "Antolatzaileek eta bertaratu zen jendeak balorazio ona egin zuten". Arraunlariak ere gustura geratu ziren antolatzaileek emandako tratuarekin. Denak gustura beraz. Irailaren 14koa lehenengo arraunkada izan zen. Datorren urtean jarraipena izango du.

## MEREZITAKO ATSEDE-NALDIA

Gogor entrenatu dute TAKeko neskek Kontxan ahalik eta lan onena egiteko asmoz. "Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketak egin ostean jakin genuen Kontxako

Bandera egingo zela". Opor txiki batzuen ondoren, abuztuaren 18an hasi ziren entrenatzen. Oriora joan-etorriak eginez ibili dira. "Tolosan ez genuen traineru bat ateratzeko baliabiderik. Orioko arraun taldeak materiala, entrenamendu lekua... utzi dizkigu. Babes handia eman digute". Traineru denboraldiari, aurretik izan zen batel denboraldia gehitu behar zaio. Ia urte bete daramate geratu ere egin gabe. Orain ondo merezitako oporrak hartuko dituzte. Opor laburrak hala ere; Urriari hasiko dira ostera datorren urteko batel denboraldia prestatzen. Zorionak denei!

**TXIRRINDULARITZA >>>** TRIATLOIA UTZI ETA DENA TXIRRINDULARITZARI EMANGO DIO LEUNDAK

# Ezustean txapeldun

*Itxaso Leunda triatloia prestatzeko hasi zen denboraldi hasieran Debabarrena-Kiroldgi taldean. Taldekideei laguntzea izan da bere lana. Zeregin hori jarri zioten Euskadiko Selektzio teknikaiek hilaren 7an Valladoliden jokatu zen Espainiako Txapelketan. Hernialdekoak ordea ezustekoa eman eta lehen postuan zeharkatu zuen helmuga. Orain Espainiako txapelduna da.*

Leire Zubeldia

## **Espainiako Txapeldun izatea espero zenuen garaipena al zen?**

Ez. Nire selektziokideen mesedetan lan egitera joan nintzen. Baina errepidean geundela ihesaldi bat suertatu zen eta hortik sortu zen dena.

## **Nola izan zen lasterketa?**

Lehenengo kilometrotik lasterketa hausteko agindua genuen, ez baizitzaigun interesatzen sprintean amaitzea. Bost txirrindulari ginen beste bost taldekidentzat lanean. Txandaka erasoak jotzen ari ginen etengabe. Nik erasoak jo nuenean atzetik sei txirrindularik jarraitu ninduten. Taldetxo bat sortu genuen eta hasieratik ondo konpondu ginen elkarrekin. Konturatzerako tropelari tarte dexentea atera genion. Erritmo bortitzean joan ginen eta portura iristerako zortzi minutuko aldea zegoen gu eta tropelaren artean. Mendatean taldea

hautsi egin zen. Ni bigarren iritsi nintzen gainera eta ordurako lehenengo zihoana ez nuen ikusten. Gero ordea, harrapatu egin nuen. Biok esan genuen, *dena eman beharko dugu edo dena galduko dugu*. Azken 10 kilometroetan sartu ginenean nire iheskidea urduritzen hasi zen. Batetik indartsu ikusten ninduen, eta bestetik, autotik esan zidaten bera sprintean kaxkarra zela. Bere erasoak eutsi egin nien. Azken kilometroan nik jo nuen erasoak eta bakarrik iritsi nintzen helmugara.

## **Helmuga marra zapaldu zenuenean lortutakoaz jabetzen al zinen?**

Iheskideari erasoak jo nionean ez nekien barre edo negar egiten ari nintzen. *Eman duzun guztia, zurea izan daiteke eta!*, esaten nion nire buruari. Helmuga igaro nuenean irabazi nuenik ezin nuen sine-tsi.

## **Txirrindulari gisa helmugan eskuak altxa dituzun lehenengo aldia izan al da?**

Bai. 12 lasterketa besterik ez ditut egin orain arte. Ez dut denborarik izan bi eskuak altxatzen ikasteko! Badaezpada ez nituen eskuak altxa, ipurdizgora eroriko nintzen bestela!

## **Debabarrena-Kiroldgi zure taldearentzat garaipen garrantzitsua da hau...**

Gehien poztu dena nire zuzendaria izan da. Nire taldearentzat izugarritzko bultzada izango da garaipen hau, dirulaguntza aldetik gehien bat. Debabarrena-Kiroldgi bi Espainiako txapeldun gaude une honetan, Irene Sansebastian ere txapeldun izan baita

*“Hemendik aurrera dena emango diot txirrindularitzari”*

bere mailan. Ezezagunak izatetik Espainian talde erreferente izatera igaro gara.

## **Debabarrenan hasi zinen bizikleta gainean trebatu eta honi triatloian zukua ateratzeko. Orain, Espainiako Txirrindulari Txapelketa irabazita zein bide hartu behar duzu?**

Proba baino lehen etxekoekin hitz egiten aritu nintzen datorren urtean triatloia ondo prestatu nahi nuela esanez. Igande eguerdian, lasterketaren ondoren, zalantzak sortu zitzaizkidan, eta orain konturatzen ari naiz zer suposatzen duen mailot hori soinean eramateak. Ez dago beste erremediorik: Espainiako txapeldunak errepidean egon beharra dauka. Hemendik hamar egunetara denboraldi berria prestatzen hasiko naiz, eta hemendik aurrera dena txirrindularitzari emango diot. Pena ematen dit triatloia uzteak, asko disfrutatzen nuen. Baina aukera hau ezin dut alferrik galdu.

## **Presio handia eragiten dizu Espainiako elastikoa eramateak?**

Orain konturatzen ari naiz presioa izango dela niretzat. Nire ingurukoek lagunduko didate zama hori arintzen. Ni, ahalik eta ondoen egiten saiatuko naiz. ■



# Esperientzia eta gaztetasu

JOXE ANGEL SARASOLA, IÑAKI GOROSTIDI, JOSEBA OSTOLAZA ETA AG

Amaia Goikoetxea

**I**railaren 28an, eguerdiko 12etan, jende ugari hurbilduko da Tolosako zezen plazara. Hitzordura azaltzen denak Izeta II.a eta Aimar Irigoien, esperientzia eta gaztetasuna, ikusiko ditu elkarren aurka. 137,5 kiloko harri kubikoak hautsiko du bien arteko oreka.

Apirilean adostu zuten bi harrijasotzaileek datorren astean burutuko duten apustua. Izetak 125 kiloko harriarekin 10 minutuko hiru tan-

**Ikusmin handia sortu du Izeta II.aren eta Aimar Irigoienen arteko apustuak. Lehenaren eskarmentua eta bigarrenaren gaztetasuna jarriko dira lehian, eta zein gailenduko den harriak erabakiko badu ere, harri-jasotze mundua ederki ezagutzen duten lagunen iritzia bildu du Galtzaundik norgehiagokaren bezperan.**

akordio batera iritsi ziren bi aldeak: 137,5 kiloko harri kubikoarekin 10 minutuko hiru tanda egingo dituzte eta 20.000 euro jokatu, bakoitzak proposatutakoaren erdibidean geratuz. Sarreretan lortutakoa erdibana egingo dute.

Jose Ramon Iruretagoiena, Izeta II.a, lan luzeetan zaildua dago eta harri txikietan

rra, aldiz, lan motzetara dago ohituta: 3 minutuko saioak egin ohi izan ditu, noizbait 5 minutuko bi txandako erakustaldia ere egin duen arren. Harri txikietan zein handietan trebea da errezildarra: bera da egungo Euskadiko Txapelduna bi modalitateetan. Hau da bere lehen apustua.

Bost hilabete igaro dira

## GAZTETASUNA GARAILE, PAREKATUA DEN LEHIAN

Norgehiagoka nork irabaziko duen irailaren 28an jakingo bada ere, zaleek eta adituek egin dituzte euren kienielak. Jarraitzale amorratuek ere egin dituzte euren apustuak, baten zein bestearen alde, lehia orekatua izango dela agerian utziz. Joxe Anjel Sarasola, Iñaki Gorostidi, Joseba Ostolaza eta Agustin Arruti Landarbide ere bat datoz norgehiagoka berdindua izango dela iragartzean.

Iñaki Gorostidik, izen bereko harriaren aitak eta 185 kilokoa bitan esku batekin altxatu zuen adunarrak, harri kubikoarekin lan handiak egindako bi harrijasotzaile direla azaldu du eta zentzu horretan “egungo bi harrijasotzaile onenatarikoak” direla dio. Izetarekin apustua egin zuen Landarbidek ere biek harri kubikoarekin duten trebezia nabarmendu du.

Lau adituek Izetaren eskarmentua nabarmentzen dute. “Izetaren esperientzia handiak bermea ematen dio aiarrari apusturako”, dio harrijasotze mundua hurbiletik ezagutzen duen Joxe Anjel Sarasolak, “Izetak apusturen batean izena ematen duenean, irabazi egin ohi du”. Irigoien aurretik harri txiki eta handietan Euskadiko Txapeldun izandako Joseba Ostolaza ere bat dator horre-



Izeta IIak egiten dituen apustu guztiak irabazi ditu.

da egiteko proposamena egin zuen, alde bakoitzak 10.000 euro jarrita. Irigoien, aitzitik, 150 kiloko harriarekin 10 minutuko hiru tanda egitearen alde agertu zen, bakoitzak 30.000 euro jokatuta. Luze eztabaidatuta,

moldatzen da ondo. Sasoi onean dagoela erakutsi berri du aiarrak Igeldoko Harria Sariketa bosgarren aldiz jarraian irabazita; 134 kiloko harria 15 aldiz altxatu zuen 5 minututan.

Aimar Irigoien errezilda-

apustua hitzartu zutenetik. Desafioari begira egin beharreko prestakuntza lan guztiak eginda dituzte bi harrijasotzaileek eta orain atsedean hartu eta datorren asteko igandera arte itxaron besterik ez dute. Gainean da eguna.

# na aurrez aurre

USTIN ARRUTI "LANDARBIDE"REN IRITZIAK BILDU DITU GALTZAUNDIK

tan: "Izeta oso aurkari ona da, zailduta dagon honelako apustuetan".

Aimar Irigoieni ikusten dioten desabantaila bakarra lan luzetarako ohiturarik ez izatea da. "Izetak lan handiak egin ditu iraupen horretako tandetan. Oso luzeak egiten diren saioak dira. Aimar ohituagoa dago lan motzetara, baina ezin ukatu marka guztiak hausten dituela" dio Gorostidik.

Lan horretan esperientziarik ez badu ere, lau adituek ez dute zalantzarik egiten Aimarrek gauzak zail jarriko dizkiola Izetari. "10 minutuko hiru tandek Aimarren gainean zalantza sor badezakete ere, errezildarra gaztea, bizia eta indartsua da" dio Landarbidek. Ostolazak ere ez du zalantzarik egiten "Aimar oso ondo prestatuta" joango dela esatean.

Horrelako lehia parekatuetan, faborito bat esatea ez da lan erraza izaten. Sarasola eta Gorostidik, hala ere, Aimar Irigoienen alde

egin dute. Dena den, eta Joxe Anjel Sarasolak esan bezala, "ez da erraza esaten,...

irailaren 28an ikusi behar". Horixe onena: irailleko azken igandera arte itxarotea, eta

nor gailentzen den ikustea. Edo zer: esperientzia ala gaztetasuna. ■



Aimar Irigoienaren lehenengo apustua izango da hau.

## ESPERIENTZIA VS. GAZTETASUNA

### IZETA II (Aia, 1967)

Lorpenak:

- Gipuzkoako Txapelduna harri txikietan 5 aldiz
- Euskadiko Txapelduna harri txikietan 3 aldiz
- Igeldoko Harria Sariketan Txapeldun 5 aldiz jarraian. Goenatxok ezarritako markatik txapel batera dago

### Aimar Irigoien (Errezil, 1986)

Lorpenak:

- Iazko eta egungo Gipuzkoako Txapelduna harri txikietan
- Iazko eta egungo Euskadiko Txapelduna harri txiki eta handietan. Handietan marka guztiak hautsita, gainera
- Iaz 152 kiloko kuboarekin marka hautsi, 3 minututan 17 jasoaldi egitean. 175 kiloko zilindroarekin ere marka hautsi, 2 minututan 16 jasoaldi egitean

# Irailaren 19tik urriaren 3ra arteko hitzord

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat: [erredakzioa@galtzaundi.com](mailto:erredakzioa@galtzaundi.com) helbidera

## ERAKUSKETAK

### ARANBURU JAUREGIA

»» Irriaren 9ra arte: **Sükriü Karaküs** izeneko pintura erakusketa.

»» Irailaren 26tik azaroak 8 arte: Jose Luis Urdapilletaren **argazki erakusketa**.

## ANTZERKIA

### LEIDOR

»» Irailak 19: **Ezker eskuma** antzezlanaren 20:30ean.

»» Irailak 20: **Bremengo musikariak** antzerkia haurrentzat 17:00etan.

## IKUSKIZUNAK

### LEIDOR

»» Irailak 29: **Gero Axular** dantza taldearen emankizuna Aspanovas elkarteak antolatuta 17:00etan.

## MUSIKA

### FRONTON KAFETEGIA

»» Irailak 26: **Karma Quintet** taldearen kontzertua 23:00etan.

## ZINE FORUM

### LEIDOR

»» Irailak 18: **West Side Story** 19:00etan eta 21:45ean.

»» Irailak 25: **Yo** izeneko filma 19:00etan eta 21:45ean

## ZINEMA

### LEIDOR

»» Irailak 20: **Antes que el diablo sepa que has muerto** 19:30ean. **Mamma Mia** 22:30ean.

»» Irailak 21: **Kung-Fu Panda**, 17:00etan. **Mamma Mia**, 19:30ean.

»» Irailak 22: **Antes que el diablo sepa que has muerto**, 20:30ean.

»» Irailak 26: **Che el Argentino**, 22:30ean

»» Irailak 27: **Che el Argentino**, 19:30ean, 22:00etan.

»» Irailak 28: **Ahatetxo itsusia eta nihaurrentzako filma**, 17:00etan. **Che el Argentino filma**, 19:30ean eta 22:00etan.

»» Irailak 29: **Che el Argentino**, 20:30ean.

## BEDAIOKO ZALDI RAID LASTERKETA

»» Irailak 28: Goizeko 10:00etan hasita 20km-ko zirkuitua izango da. Izen ematea zabalik hilaren 21era arte, 620199166 telefonoan eta [www.bedaio.com](http://www.bedaio.com) webgunean. Antolatzailea: Artubi Elkarte.

## SAN MIGELAK 2008 EGITARAUA

»» Irailak 19, ostirala

19:30: Jaien hasiera: Suziria, Erensugea ateratzea txalaparta-hotsekin eta kalejira buruhandi eta erraldoiekin eta THE JONES BROTHERS txarangarekin.

21:00: Barrikotea San Migel plazan THE JONES BROTHERS txarangak alaitua.

24:00: Dantzaldia "JOSELU ANAIAK" taldearekin San Migel plazan.

»» Irailak 20, larunbata

"HAUR ETA GAZTEEN EGUNA"

9:00: Gazte Festa San Migel plazatik aterata.

12:00: Marrazki lehiaketa San Migel plazan.

13:00: Jokuak haur eta gaztetxoentzat San Migel plazan.

14:00: Gazteen sokadantza San Migel plazan.

14:30: Haurren bazkaria San Migel plazan.

14:30: Gazte-festako bazkaria Zaharren Biltokian.

15:00: TXUTXU trena familientzat San Migel plazatik eta puzgarriak garbilekuko plazan.

18:00: Gazteentzako zezen mekanikoa garbilekuko plazan.

18:00: \* Haurrentzako dantzaldia Xurdirin eta bere lagunekin Loatzo plazan.

19:45: \* Sagardo dastaketa San Migel plazan.

21:00: Gazte-festako afaria Aizpurua jatetxean.

24:00: Musika-emanaldia San Migel plazan LA PEGATINA SOUND SISTEM eta HESIAN taldeekin.

\* Euria aurreikusten bada haurren dantzaldia eta sagardo dastaketa frontoian izango dira.

»» Irailak 21, igandea

12:30: Gorritiren abereak San Migel plazan.

17:30: "Irrurako eta inguruko herrietako dantzari-txikien saioa \*San Migel plazan.

Ondoren herri kirolak \*San Migel plazan: Harrijasotzailea MARI JOSE SARDON: 100 Kgko bolarekin marka-saiakera egingo du 5 minutuko txanda bakarrean. Emakume batek bolarekin marka saiakera egiten duen lehenengo aldia da 2) aizkolariak: Mujika eta Otaegi Lasa eta Txapartegiren aurka.

20:00: Txinparta trikitilari taldea San Migel plazan.

\* Euria aurreikusten bada dantzariak eta herrikirolak frontoian izango dira.

»» Irailak 26, ostirala

18:00: Irurako Pilota Eskolako haurren arteko xare eta pala partidak trinketeen.

Ondoren; kalejira Loatzo musika-eskolako txistulariekin eta buruhandi eta erraldoiekin trinketetetik Agusti-neneko plazara eta txistor-jatea Share Elkarte.

22:30: Play Back jaialdia frontoian.

Irailak 27 larunbata

11:00tan eta 16:00tan; Haur parkea garbilekuko plazan.



HALCON  
BIDAIAK

*Bidaiarik erakargarrienak*

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113



errrotatxo  
okindegia

Andia kalea, 3  
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A  
Tel.: 943 671 038



## duak

18:30; "KANPANOLUE" kale-antzerkia San Migel Plazan.

19:30; Bertso-saioa San Migel plazan Maialen Lujanbio, Xabier Paia, Sustrai Colina eta Jexux Mari Irazu bertsolariekin. Aurkezlea: Unai Elizasu.

23:00; OINKARI dantza taldea ASPALDIKOTIK ikuskizunarekin \*San Migel plazan.

Gaueko 12:30tan; Gaupasa TRIKI TAKE taldearekin San Migel plazan.

\* Euria aurreikusten bada Oinkariren emanaldia frontoian izango da.

»» Irailak 28 igandea;

"BIKOTEEN EGUNA"

12:00; Apar-festa San Migel plazan.

14:30; Bikoteen bazkaria Aizpurua jatetxean. Ondoren musika dantzagarria zuzenean Olatz Korta eta Xavier Zubeldiarekin. Oharra: zaintza-zerbitzua egongo da ludotekan 2/9 urteko haurrentzat gurasoak bazkarira joan ahal izateko.

17:30; Haurrentzako joku-herrikoiak Xiba taldearen eskutik San Migel plazan.

20:00; Itzeder eta Joseba Trikitilariak San Migel plazan.

23:00; "REYES DE MEXIKO" mariachiaren emanaldia San Migel plazan.

»» Irailak 29, astelehena

"SAN MIGEL EGUNA"

09:00; Goiz-eresia txistulariekin kaleetan zehar.

11:00; Herriko zaindariaren omenezko meza nagusia San Migel elizan. Ondoren dantzari txikien saioa. Jarraian hamaiketako herrikoia San Migel plazan eta Gazte Alaiak Elkartearen.

18:00; Loatzko Musika Eskolako ikasleen emanaldia San Migel plazan.

19:00; Kale-antzerkia San Migel plazan.

Jarraian Rua Mayor taldearen musika eta dantza latinoen ikuskizuna San Migel plazan.

21:30; Erenseuga erretzea San Migel plazan jaiak bukatzeko.

## MOTZEAN

## Kiroljokoa apustu-etxea zabalik Tolosan

Hilaren 11ean zabaldu zen apustu-etxea Tolosako Errementari kaleko 2. zenbakian. Jada lehenengo apustuak egin dituzte apustu zaleek. Futbol liga, pilota partiduak, herri kirol probak... Joko mota ezberdinetan egin ahal izango da apustu. Hilaren 28an Tolosako zezen plazan jokatu den apustu handirako ere prest dago Kiroljokoa.

Kiroljokoko arduradunen hitzetan, "Kiroljokoa kirola bizitzeko gunea izango da. Makinetan eta harrean egin daitezke apustuak eta horretaz gain, zale-tuek, pantaila handietan kirol lehiak zuzenean ikusi ahal izango dituzte.

Apustu-etxeaz gain, Tolosako Kantabriko, Nahien eta Denak tabernetan jarri diren makinetan ere apustuak egin ahal izango dira hemendik aurrera.



## Guardiako farmaziak

## IRAILA

- Ostirala, 19**  
Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa
- Larunbata, 20**  
Ugarte, (Euskal Herria, 46) Ibarra
- Igandea, 21**  
Bronte (Korreo 20) Tolosa
- Astelehena, 22**  
Tolosa, (Kale Nagusia, 7) Tolosa
- Astearte, 23**  
Olarreaga J. (korreo 2) Tolosa
- Asteazkena, 24**  
Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
- Osteguna, 25**  
Iturrioz, (Euskal Herria, 3) Ibarra
- Ostirala, 26**  
Azpiroz Lourdes (Amaroz, 9) Tolosa
- Larunbata, 27**  
Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa
- Igandea, 28**  
Etxebeeste Jesus M<sup>o</sup> (Gernikako arbola, 3) Tolosa
- Astelehena, 29**  
Olarreaga M. (M.J.Iraola, 10) Tolosa
- Astearte, 30**  
Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
- Asteazkena, 1**  
Ugarte, (Euskal Herria, 46) Ibarra
- Osteguna, 2**  
Azpiroz Lourdes (Amaroz, 9) Tolosa
- Ostirala, 3**  
Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa

## Telefono interesgarriak

- Alegia-Amezketak-Albaitzura-Albaitzur**  
Osasun zentroa. . . . . 943 653 212
- Altzo**  
Medikua . . . . . 943 654 737
- Anoeta-Alkiza-Hernalde**  
Medikua . . . . . 943 652 339
- Baliarrain**  
Medikua . . . . . 943 889 003 (asteazk.)
- Berastegi-Elduain**  
Medikua . . . . . 943 683 361
- Bidegoian**  
Medikua . . . . . 943 681 134
- Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu**  
Osasun etxea . . . . . 943 672 411
- Ikaztegieta**  
Medikua . . . . . 943 653 329
- Irura**  
Osasun zentroa. . . . . 943 690 720
- Tolosa**  
Anbulatorioa, larrialdiak . . . . . 943 650 931  
San Esteban, hitzordua . . . . . 943 006 800  
Gernikako Arbola, hitzor . . . . . 943 006 900  
Amarozko dispensarioa . . . . . 943 672 637  
Asunzion klinika . . . . . 943 675 799  
(larrialdiak) . . . . . 943 675 390  
San Kosme San Damian  
geriatrikoa . . . . . 943 672 932  
Udaltzaingoa . . . . . 943 675 858  
Ur eta Argia (Tolargi). . . . . 943 650 016  
Ur zerbitzuak (aberiak) . . . . . 639 352 156  
lurreamendi egoitza . . . . . 943 670 325  
Larrialdiak, Suhiltzaileak . . . . . 112  
DYA . . . . . 943 672 536  
Gurutze Gornia . . . . . 943 674 888  
. . . . . 943 651 425  
Ertzantza . . . . . 943 673 022  
Tolosa Gasa . . . . . 943 675 320
- Lizartza**  
Medikua . . . . . 943 682 077
- Orendain**  
Medikua . . . . . 943 655 595
- Orexa**  
Medikua . . . . . 943 682 228

**Vicente**  
Errotuloak

Mugikorra: 609 15 65 08  
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294  
■ Irura ■ Faxa. 943 694291  
rotulosvicente@jet.es

T X O K O L A T E G I A

**uli**

K A F E T E G I A

Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 651 830

**Xirimiri**  
Txokolategia  
Xabier Izagire

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

## Muxu- -truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean dohainik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

### LANA

■ **Adineko pertsonak** edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**

### ETXEBIZITZA

■ **Etxebizitza salgai** Alegian. 65 m<sup>2</sup>. 168.000 euro. **629 52 51 50**.

■ Neska batek, estudio bat edo pisu konpartituan **gela bat alokatu nahi du**. 948468327.

■ **Etxebizitza salgai** Izaskun auzoan. 60 m<sup>2</sup>. 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. **645 718 536**

■ Ikasle bat, **pisu bat konpartitzeko** beste ikasleen bila dabil. 627834993.

■ **Garaje bat** alokatzen da Anoetako San Juan kalean.

### SALGAI

■ Setter Ingles arrazako **txakur kumeak salgai** Abaltzisketan. **697.92.99.99**

■ **Kotxe bat salgai** BMW 330 D full equipu 18.000 euro. **629 52 51 50**.

### IKASKETAK

■ **Ingelesko** klaseak ematen dira taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak, irakasle tituloduna. **664 160 268**.

# HOROSKOPOA

IRAILAREN 19TIK URRIAREN 3RA ARTEKO AURREIKUSPENA



## ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Virgoren izarrak dizdira berezi bat egiten du zuregan eta inoiz baino ederrago ikusten zaituzte, batez ere berak. Albiste on bat emango dizute egun batzuen buruan.



## TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Zerbeit ezkututzen ari zaizkizu eta gaizki pentsatzen hasia zara. Lasai, ezusteko polit bat prestatzen ari dira eta. Pazientzia izan laneko kontuetan.



## GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Sentimenduak gordetzeko joera horrek kalte besterik ez dizu egiten. Hitz egin lasai kezkatzen zaituen horretaz. Lehenengo aldiari egingo zaizu zailena.



## CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Nahastuta zaude. Ideiak ordenatzeko papera eta arkatza bezalakorik ez dago. Haizez aldatzeak on egingo dizu, asteburu bateko eskapatatxo batek adibidez.



## LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Txarra zara gauzak ezkututzen. Inguruak segituan antzematen dizute. Egia-ekin jokatu beharko zenuke beti, bestela egoerak gaiztatu egin daitezke.



## VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Egin dezakezuna baino gehiago hartzen duzu zure gain. Estresa ez da lagun ona osasunarentzat. Neurriak hartu beharko zenituzke. Diru sarrera interesgarri bat izango duzu laster.



## LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Min egin dizunari min egiteak ez zaitu sendatuko. Jarraitu zure bidea, sasoi onak datoz. Jende interesgarri ugari ezagutuko duzu hurrengo hilabeteetan.



## SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Sobran dituzun kiloak jaistea ondo dago, baina horrek ez du esan nahi jateari utzi behar diozunik. Kirola egitea komeni zaizu.



## SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Garai txarrak datoz. Krisi ekonomikoak eragina izango du zuregan. Haurrezten hasi beharko zenuke. Luzea eta gogorra izango da.



## CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Denbora gutxi eskaintzen diozu zure bikotekideari. Batera egoteko egunak eta denbora tarteak hitzartu beharko zenituzkete eta horri eutsi.



## AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Osasun aldetik pataill xamar ibiliko zara bolada batean. Ariketa fisiko gehiago egitea komeni zaizu, horrek berak piztu egingo zaitu. Zorteko izango zara jokoa.



## PISCIS

Otsailak 21 – martxoak 20

Sekula baino maiteminduago egongo zara zure bikotekidearekin. Egun zoragarriak dituzu aurretik. Lasaitzeko baliatu beharko zenituzke. Lagunartean ere maitatua sentituko zara.





# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.  
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

**Denda:** P° San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
Tel.: 943 653 307  
Tel. / Fax: 943 650 520  
E-mail: muebles@berogas.com

**Bulegoak:** Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
Fax: 943 675 421  
E-mail: berogas@berogas.com

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)

POLIURETANOZKO LEIHOAK




**CITROËN BERLINGO BERRIA.  
BENETAZKO NAGUSI DIRENENTZAT.  
ETA GAINERA, MERKATUAN DAGOEN AUTOEN GAMA LIDERRA AURKEZTEN DIZUGU**



<b>CITROËN NEMO</b> 8.250 €* TIK + BEZ	<b>CITROËN BERLINGO FIRST</b> 8.400 €* TIK + BEZ	<b>CITROËN JUMPY HDI</b> 14.900 €* TIK + BEZ	<b>CITROËN JUMPER HDI</b> 15.400 €* TIK + BEZ
---	---	---	--

**Berlingo**

CITROËN nahiago du **TOTAL**

Aurkitu **JEFOMETROA** [www.citroen.es](http://www.citroen.es) Citroën harremanetarako telefonoa 902 44 55 66.

ETOR ZAITEZ IKUSTERA:

**IROVI, S.A.** Citroën Kontzesionario Ofiziala  
Industrialgunea z/g. Tel.: 943 65 18 42. **Anoeta / Tolosa**

**CITROËN** 

NO TE IMAGINAS LO QUE CITROËN PUEDE HACER POR TI

Consumo mixto (L/100 Km.) / Emisión CO<sub>2</sub> (g/Km.): Nemo Combi: 4,6-7,0/123-165  
Matrikulazio datuak DGT Komertzialak akumulatua abuztuan 2008. \*Salneurri gomendatua zergarik gabe Nemo Furgón-arentzat 1,4i, Berlingo First Furgón-arentzat 1,4i, Jumpy Furgón-arentzat 27L1H1 HDI 92 eta Jumper Furgón-arentzat 30L1H1 HDI 100. (Garraioa eta eskaintza promozionala barne). Jarduera enpresarial edo profesional baten inguruko bezeroentzat zuzenduriko eskaintza R.D. Leg. 1/2007-ren arabera. Eskaintza metaezinak. Hilabete bukaera arte baliagarria stock-ena dauden autoentzat, Penintsulan eta Balaerretan, eskaintzan parte hartzen duten salmenta puntuetan. Ikusgai dauden modeloak: Nemo Combi X, Berlingo First Combi X, Jumpy Alliant eta Jumper Combi Club 33L2H2.

[galtzaundi.com](http://galtzaundi.com) egin klik!

# Senda Bide

Dietista diplomatuen aholkularitza profesionala


Dieta pertsonalizatuak  
Doako bisitak



- Elikadura biologikoa
- Kontsulta naturista
- Zeliakoentzako elikadura
- Bibirako orduak hartzen ditugu.



San Frantzisko, 19 - Telf.: 943 655 444 - Tolosa  
Korreo kalea, 3 - Tel.: 943 674 140 - Tolosa



## Ilea buruhauste?

Guk erabat kenduko dizkizugu, bai ilea, baita buruhaustea ere.

Eta zuk zeuk ikus dezazun, Diodo Laserraren bidezko depilazioaren lehenengo saioan %50a merkeagoa egingo dizugu, irailean, Maite Estetika eta Kosmetika Zentroan.

- Nazioarteko Komunitate Zientifikoak eman digu abala.
- 0120 Mediku Taldea CE Ziurtagiria.

Promozioa irailean soilik.

Deitu oraintxe eta erreserbatu lehenengo saioa.

Tfno. 943 67 03 38 | C/ Leiza s/n TOLOSA

